

**ASOCIACIÓN DE ANTIGUAS ALUMNAS DE ESCLAVAS DEL SAGRADO  
CORAZÓN "SANTA RAFAELA MARÍA"****Novia Salcedo, 21  
48930 Getxo (Bizkaia)**

Honekin batera bidaltzen dizuegu 2016ko urtarrilaren 26ko Jaurlaritzaren Kontseiluko 8/2016 Dekretua, Asociación de Antiguas Alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón "Santa Rafaela María" erakundea, gizarte-interesekotzat aitortzeko dena, eta 2016ko otsailaren 4ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Dekretu horrek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, aurretik beronen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Jaurlaritzaren Kontseiluari hilabeteko epean, edo bestela zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adjunto remitimos el Decreto 8/2016, del 26 de enero de 2016, del Consejo de Gobierno, por el que se declara de interés social a la Asociación de Antiguas Alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón "Santa Rafaela María", publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 4 de febrero de 2016.

Contra el citado Decreto, que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 4an.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2016.

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

- 5 FEB 2016

Erregistro Orokor Nagusia  
Registro General Central

SARRERA

IRTEERA

Zk.

Zk. 43222

**Emilio Sola Ballojera****Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria / Director de Servicios Sociales**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
Dirección de Servicios Sociales

**BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO**

23. zk., 2016ko otsailaren 4a, osteguna

N.º 23, jueves 4 de febrero de 2016

**BESTELAKO XEDAPENAK****ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**

516

8/2016 DEKRETUA, urtarrilaren 26koa, Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» elkarteak gizarte-interesekoa dela aitortzeko dena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatzen denez, gizarte-zerbitzuen eskaintzan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortuak ahal izango dira, araubidez ezarritako baldintzak betetzen badituzte; guztia ere, EAEn gizarte-zerbitzuak garatzearen, Gizarte-ekintzako Hirugarren Sektoreak egindako ibilbidea eta ekarpenak aitortzeko.

Urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortzeari buruzkoak, gizarte-intereseko aitortpena lortzeko baldintzak eta prozedura arautzen ditu.

Lege horren babesean, Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» elkarteak aitormen hori eman dakiola eskatu du, bere ustez gizarte-intereseko erakundea dela aitortzea merezi baitu, gizarte-ekintzaren arloan egiten duen lanagatik.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak informatu duenez, Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» elkarteak irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, 1972. urtean eratua, eta honako helburu hauek ditu:

– Batasuna eta elkar-laguntza sustatzea, ikasle ohien artean, Instituto de las Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús erakundea eta horren ikasle ohien artean, eta ikasle ohien eta Instituto de las Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús erakundearen artean, erakundearekin lankidetzan aritzeko Elizaren behar nagusietan eta ekintzetan parte hartuz.

**OTRAS DISPOSICIONES****DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES**

516

DECRETO 8/2016, de 26 de enero, por el que se declara de interés social a la Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María».

El artículo 74 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, establece que podrán ser declaradas de interés social las entidades sin ánimo de lucro dedicadas a la prestación de servicios sociales, que cumplan las condiciones que se determinen reglamentariamente, en reconocimiento de su trayectoria y contribución del Tercer Sector de Acción Social al desarrollo de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma.

El Decreto 424/2013, de 7 de octubre, sobre la declaración de interés social de las entidades sin ánimo de lucro de servicios sociales, regula los requisitos y el procedimiento aplicables para la obtención de la declaración de interés social.

A su amparo, la Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María», ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que desarrolla de acción social la hacen merecedora del reconocimiento como entidad de interés social.

Tal y como informa la Dirección de Servicios Sociales, la Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» es una entidad sin ánimo de lucro constituida en el año 1972 y tiene como objetivos:

– Promover la unión y mutua ayuda de las antiguas alumnas entre sí, del Instituto de las Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús con sus antiguas alumnas y de las antiguas alumnas con el Instituto de las Esclavas, cooperando con él en las grandes necesidades y empresas de la iglesia.

– Gizarte-onurako eta heziketako jarduerak sustatzen eta garatzen aritzeta eta laguntzea. Jarduera horiek ezindu psikikoen eta bestelako zentroetan garatuko dituzte.

Ibilbide historikoa du Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte-zerbitzuak ematen; izan ere, egiaztatu du bere jarduera etenik gabe burutu duela 2010etik aurrera.

Urriaren 7ko aipatutako 424/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak onartutako dekretu bidez egingo da gizarte-intereseko aitortpena, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta, zeinak dagokion espedientea izapidetu baitu.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko urtarrilaren 26an egindako bileran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» elkarteak gizarte-interesekoa dela aitortzea, burutzen dituen gizarte-ekintzen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzen duelako.

2. artikulua.– Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» elkarteari onartzea aipatutako aitortpenari dagozkion eskubideak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan aurreikusitakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 26an.

Lehendakaria,

IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.

– Actuar y contribuir en el fomento y desarrollo de actividades benéficas sociales y educativas que desarrollarán en centros de disminuidos psíquicos y otros.

Cuenta con una trayectoria histórica de prestación de servicios sociales en el Territorio Histórico de Bizkaia, ya que ha acreditado el desarrollo de su actividad ininterrumpidamente desde el año 2010.

De conformidad con lo dispuesto en el citado Decreto 424/2013, de 7 de octubre, la declaración de interés social se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta del Consejero del Departamento competente en materia de servicios sociales que ha instruido el oportuno expediente.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Empleo y Políticas Sociales, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de enero de 2016,

#### DISPONGO:

Artículo 1.– Declarar de interés social a la Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María», por considerar que contribuye al desarrollo de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco mediante el desarrollo de sus actividades de acción social.

Artículo 2.– Reconocer a la Asociación de antiguas alumnas de Esclavas del Sagrado Corazón «Santa Rafaela María» los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 74 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de enero de 2016.

El Lehendakari,

IÑIGO URKULLU RENTERIA.

El Consejero de Empleo y Políticas Sociales,  
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.